

Trapuan pupua
Patziku Perurena

Mundiala dek txo hau. Pasara hutsa. On-ona dek. Apur bat torpedeatuta geratu ninduan Trabukori buruz izkiriatu zuen liburua (Goizuetan bada gizon bat...) nire e-reader book-en irakurri nuenean, liluragarriak ziren euskarakadaz betetako kastillano zahar pila horrekin nahastutako atal horiek guztiak (azkenerako, apur bat astuna egiten bazen ere), eta orain ez al zaidak etorri ba artikulu-bilduma *chapeau* batekin, merkatuko piperminik aspergarrien eta loarazleena berpizteko gauza bai dena? Ostia eta gehiago gustatzen zaidak txo hau. Idazten duenean, arnasartzen ariko balitz bezala dek. Ez dek ezer soberan eta aldi berean dena dik soberan. Osea sobrao dabilela. Pasara hutsa dek. Oteiza gogoratzen zidak, bere ostia txarrarekin beti soinean noranahi, bai, baina burdina zura edo behar zena lantzeko orduan, handietako bat. Horrelakoa dek Patziku Perurena, hizkuntzarekin baina. Benetako idazkera literario bat sortzen dik eta hartaz gozatzen dik eta gozarazten hau, eta daukan bagajea sofiskatu samarra izanik ere, harengan guztia dek naturala; azalezkoa kasik, hain dek sakona! Sakona, hizkera aldetik esan nahi diat, baina baita beste gauza batzuen aldetik ere. Nobelista izateko irudimenik ez dik (gaitzerdi, sekulako nobelista-izurria zegok lurralde osoan!), baina hala ere, gutxik egin dutenak egin dik berak: benetako idazkera literario, fikziozko, pertsonal eta zinezko bat sortu dik. “Ez zaidak inporta zer dioen, nola dioen baizik”, holaxe laburbiltzen diat Patziku Perurenaren obra. Hortik aurrera, Patzikuk nahi duena esan eta egin dezakek; emango dizkidan ostiko guztiak atsegin handiz hartuko dizkiate nire barrabilek. Benetan, serio ari nauk, txo hau putamadrekkoa duk! Hori bai, liburua bukatzean korrika joan behar dek psikologoarengana depresioa sendatzera, zeren “euki’bazeukak”, eta azkenean kutsatu egiten dik. Baina zer nahi dek, Patzikuk ondoegi zekik non bizi den, eta ez alferrik euskararen hil-zoriaz hitz egiten dik (hilzoriau hitzunei ere kutsatzen zaielako, zeren bestela, ziur aski, kexatu ere ez bailitzateke egingo). Dena den, bera irakurtzen duenean, hizkuntza oraindik bizi-bizirik dagoela ohartzen haiz, eta listoi hori erdiesten saiatzea Filtzgerald batean ontziratzea dela, ezinezko helburu baten atzetik abiatzea alegia, baina aldi berean helburu izugarri eder, utopiko eta absurdua dela, bizitza dan bezala. Egin daitekeen bide bakarra dek, pasarelaren bukaeran marrazoak besterik topatuko ez dituala jakinda ere (nire kasuan, ontziaren barruan ere baneuzkaan, lehendik, zain. “Kabroi aluak!” oihukatu nieran haien hortzez betetako fauzeetan aienatu baino lehen...).